

alkandora zuria... Azkenean, elastiko urdin bat eta galtza zuriak jantzi zituen eta bere txima nahasi haiek orraztera joan zen bainugelara.

Forma biribileko eskailerak banan-banan jaitsi zituen sukaldera joateko. Bertan, ama, Selma izeneko andere nahiko gazte ilegorria, gosaria prestatzen ari zen. Amandak aitarentzako gosariaren, arrautza eta hirugiharraren, usain gozo-gozoa antzeman zezakeen egongelatik. Sukaldera sartu zenean, gurasoak agurtzea izan zen egin zuen lehen gauza. Segidan, bere betiko aulkian eseri zen, aitaren, Thomasen, eskuinaldean.

Amandaren aita oso gizon garrantzitsua zen, enpresa handi eta aberats bateko zuzendaria. Gizon dotorea, ile beltza motz zeraman eta begi urdinak zituen, alabak bezalaxe. Bibote luzea zuen sudur azpian; amak noizbait esan izan zion mozteko, baina aitak biboterik gabe ezer ez zela erantzun zion. Gorputz lodikotea zuen, leku asko behar zuen mahaian esertzean. Altua zenez, Amandari lepoko mina jartzen zitzaion aitari galderaren bat egin behar zionean. Egunkaria irakurtzen ziharduen, ordu erdi bat lehenago egunkari banatzaileak ate aurrean utzitakoa. Egunkaria irakurtzen ari zen, ordu erdi lehenago egunkari banatzaileak ate aurrean utzitakoa. Kirolen atalari gainbegiratu bat ematen ari zen beti bezala; Amandari, egia esan, grazia handirik egiten ez zion arloa. Alderantzizkoa zen, ordea, Katiren, bere lagun min eta gelakidearen iritzia. Kirolzale porrokatua zen bera. Iaz, adibidez, Ingalaterrako Atletismoko Lehiaketan (IAL) lehen postuan geratu zen.

Amak berehala eraman zuen gosaria mahaira eta aitaren ondoan eseri zen. Emakume hau nahiko txikia zen, ile gorri kizkurra zuen, nahiko motz moztua. Soineko luze bat zeraman soinean, bere urtebetetzean izeba Gemak oparitua. Oso argia zen; Amanda jaio baino lehen matematika irakasle izan zen eta, beraz, noiz edo noiz laguntzen zuen alaba bere eskolako lanekin.

Amandak aitaren batean jan zuen bere gosaria, esnea zerealekin, eta eskolarako bizkar-zorroa prestatzera joan zen lasterka, autobusa iristear baitzegoen. Beraz, sartu zituen motxilan Gizarte, Matematika eta Naturako liburuak eta aterantz zuzendu zen. PI-PI! Autobusa heldu zen. Denak agurtu eta neska, etxeko ateari ikaragarritzko danbatekoa eman ondoren ixterakoan, autobusera igo zen.

Jende askotxo zegoen. Jerry, gelako azkarrena, bakarrik zegoen eserita, beti bezala; Jon, eskolako mutilik galantena, neskez inguratuta zegoen;

beste aldeko eserlekuan Ander eta Jimmy zeuden, eskolako futbolari onenetakoak. Eta han zegoen bera, Kati, bere lagunik onena.

Neska ilehori ederra, begi berde ilunekin. Aurpegi luzanga zuen, baina besteetan baino tristeago zirudien. Beherantz begira zegoen, begirada galdua lagun. Zerbait txarra gertatu zitzaiola edo libururen bat etxean ahaztu zitzaiola pentsatu zuen gure protagonistak. Isil-isilik igaro zuten autobuseko bidaia motz hura, erabat ohikoa ez zena. Amanda ez zen ausartzen ezer esaten, Katirentzat egoera gehiago ez zailtzeko.

Autobusetik jaistean, ordea, Katik negarrari ekin zion. Amandak ea zer gertatzen zitzaion galdetu arren, honek ez zion erantzun, besarkada bat baino ez zion eman. Orduan, katik, erdi negarrez eta hitz-motelka, honako hau esan zion:

--- Hara, kontua da, ba, zera....--- hasi zen esaten, benetan urduri eta goibel --- Banoa, banoa. Familia osoa goaz Parisa bizitzera.

Hitz haiek entzutean, mundua gainera erori zitzaion Amandari. Paralizatuta geratu zen, jada arnasarik hartuko ez balu bezala. Ez zuen Kati gehiago ikusiko. Bere lagunik minena, bere pentsamenduak zaintzen zituen ateko giltzaren jabea, zen bezalakoa izaten laguntzen ziona, beti animatzen zuena, akatsen bat egiten zuenean barrerik egin ez eta akatsa konpontzen laguntzen ziona, bere laguna, Kati. Bazihoan, eta, seguruenik, inoiz ez itzultzekotan. Neskak ezin zuen hitzik esan, katuak mihia irentsi balio bezala zen. Une batez, ezentzunarena egiten saiatu zen, ezer jakingo ez balu bezala; alferrik. Bazihoan, argi asko esan zuen.

Eskolak inoiz baino geldiago pasa ziren. Segundoek minutuak ziruditen, minutuek orduak. Irakasleak esaten zuenari ez zion erreparatzen neskak. Leihotik kanpora begira geratzen zen geldirik, begiak negar malakoetan ezkutatzen zitzaizkiolarik.

Kanpoan zuhaitz asko zegoen, udazkeneko bezala, txamarra laranja jantzirik denak. Haize gozoak hostoak leunki urratzen zituen, baina hauek gogor jarraitzen zuten, ez baitzuten erori nahi. Bat-batean, haizeak nola zuhaitza gainditu eta hosto bat kendu zion ikusi zuen; hau lurrera nola erortzen ari zen poliki-poliki; bere lagunak nola agurtzen zituen aldentzen ari zen heinean; nola, hala ere, pozik agertzen zen, handik gutxira ere eurekin elkartuko baitzen behean.

--- Amanda, ba al zatoz futbolean jolastera? Atsedenerako txirrinak jo du dagoeneko --- etorri zitzaion gelakide bat, horrela berriro ere neska mundura ekarriz.

--- Barkatu, zer? --- galdetu zion, zer esaten ari zitzaion oso ondo ez baitzuen entzun.

--- Ondo al zaude?

--- Bai, noski.

--- Ziur? --- Amandak buruaz baiezkoa egin eta neskak alde egin zuen, Amanda bakarrik utziz.

Kanpotik jendearen algarak entzun zitezkeen. Batzuk jolasean, beste batzuk hizketan. Argi zegoen gehienak ondo aprobetxatzen ari zirela atsedenerako ordua. Sekulako inbidia ematen zioten, denak horren alai zeuden izan ere.

Orduantxe, Kati sartu zen gelara. Itxura tristea zuen; burua beherantz makurtuta zuen, bahera begira; goibel zegoelarik, Amandaren alboan jesarri zen. Egoera hura benetan zaila zen bientzat, kolpe gogorra izan baitzen. Ez zekiten zer esan elkarri, ezta nola erreakzionatu ere.

--- Aizu, zera..... Tira, pentsatzen aritu naiz eta, zergatik ez dugu etxetik ihes egiten? --- galdetu zion Katik.

--- Eta hori, zertarako?

--- Horrela, nire gurasoek oker ari direla ikusiko dute eta ez dut Parisa joan beharrik izango. Zer diozu?

Ez zekien zer esan. Bazekien gaizki egingo zuela ihes egitea erabakitzen bazuen, bazekien gurasoak asko larrituko zirela. Baita arazo larrietan sar zitezkeela ere. Baina, beste aldetik, ez zuen lagunik galdu nahi. Zer egingo ote zuen galdetzen zion behin eta berriro bere buruari. Zer egingo ote zuen?

--- Ados! --- biak alaitu ziren, nahiz eta Amanda bera ez zegoen oso seguru egitera zihoanaz. Ideia eroa zen, zorua.

Beraz, euren plan arriskutsua prestatzen igaro zuten atsedenaldia. Denak prest eta ondo pentsatua egon behar zuen guztia ondo ateratzeko.

Hurrengo hiru klaseetan ere ez zuen arretarik jarri. Ezin zuen egitera zihoazena burutik kendu. Amanda erabat urduri zegoen.

TIRRIIIIN! Jo zuen eskolako txirrinak. Ikasleak pilaka irteten zirek ikastetxetik, denak sekulako iskanbila sortuz, ostirala baitzen. Jendea algaraka eta builaka txoko guztietan. Txoko haietako batean zeuden gure bi lagunak. Inork entzun ez zitzan aldendu ziren apurtxo bat ikasleriagandik. Ez zuten beste inork ihesaldiaren berri izaterik nahi.

--- Orduan esan bezala.

--- Oso ongi. Gerorarte! --- elkar agurtu zuten eta bakoitza bere bidetik abiatu zen etxera.

Amanda bere buruari bueltaka ibili zen etxerako bidean zehar. Zer gertatuko ote zen harrapatzen bazituzten? Eta, zer zerbait gertatzen bazitzaien? Nora joango ziren? Gurasoak asko haserretuko ote ziren? Era horretako galderek bere burua gainditzten zuten. Geroz eta kezkatuago zegoen. Atzera egin beharko zuela pentsatzen hasia zen. Ez zekien zein aldetara jo: etsi ala planarekin aurrera jarraitu. Lagun ona balitz, etsi egingo lukeela pentsatu zuen, ez baitzion bere lagunari era horretako arriskueta sartzen utziko. Baina, bide horretatik jarraituta Katik ez alde egitea lortuko zuten agian. Erabat nahasita sentitzen zen, buruak leher egingo zion.

Etxera heldu zenean bere gelara igo zen segituan. Armairutik motxila zahar bat atera zuen ohearen gainean jarriz. Bertan galtza pare bat, bi elastiko, txamarra lodi bat hotz egiten bazuen ere eta bota batzuk sartu zituen. Jarraian, korrika eta kontuz-kontuz amak edo aitak ikus ez zezan, sukaldera jaitsi zen jateko zerbaiten bila. Beraz, eskailerak mantso-mantso jaitsi zituen eta, inguruan inor ez zebilela ziurtatu ondoren, sukaldera sartu zen. Presaka txokolatina batzuk, ogi pixka bat eta gaileta pakete pare bat hartu zituen eskuetan.

--- Zertan zabilta, Amanda? --- bat-batean ama sartu zen sukaldera.

--- Ezertan ere ez --- erantzun zion alabak gezurra, amari bizkarra ematen saiatuz zer hartu zuen ikus ez zezan; bestela, janari hura guztia zertarako behar zuen galdetuko zion.

Segituan itzuli zen bere gelara eta janari guztia motxilan sartu eta hau itxi egin zuen. Ohean eseri zen, hausnartzen. Orduan, zerbaitetaz gogoratu zen; ohetik altxa zen eta lurrean etzan zen. Ohearen azpian ezkutuan gordeta zuen kutxatxo bat atera zuen. Hautsez beteta zegoen kaxa, denbora askoan inork ez zuela ukitu argi asko ikusten zen. Bertan hosto pila bat zegoen, Amanda eta Kati txikiak zirenean udazkenero auzoko parketik etxera ekartzen zituzten hostoak ziren. Oso oroitzapen atseginak ekartzen zizkieten hosto haiek Amandari. Zoriontsu sentiarazten zuten. Haietako bi patrikan gorde zituen eta erlojuari begiratu zion, ordua zen, joateko ordua. Leihotik behera soka bat bota zuen mutur bat oheari lotu ondoren. Beldur pixka bat ematen zion arren, leihotik behera jaitsi zen.

Lasterka bizian joan zen parkeraino, bertan elkartzekoa baitzen Katirekin. Eta, hain zuzen ere hantxe zegoen, zuhaitz handi eta sendo baten azpian. Hura ikustean, txikitako kontuez gogoratu zen berriro Amanda. Zuhaitz hura berezia zen, euren zuhaitza zen. Bertan ibiltzen ziren jolasten bi lagunak, oso ondo pasatzen zuten elkarrekin; inoiz baino alaiago sentitu izan zen zuhaitz horren azpian.

Gure neska zuhaitzerantz joan zen eta Kati agurtu zuen. Isilik geratu ziren biak, baina Kati zerbait esaten hasi zen:

--- Zera, pentsatu al duzu nora joan gaitzkeen?

Momentu hartan, argi ikusi zuen ez zuela planarekin jarraitu nahi. Ez ziola bere buruari barkatuko lagunari horrelako erokeria egiten utzi izana. Atzera egiteko garaiz zebilen oraindik.

--- Hara, hau erokeria hutsa dela uste dut, Kati. --- esan zion Amandak Katiri.

--- Baina, zer diozu? --- erabat harriturik geratu zen.

--- Begira, ikusten bi hostoak? --- poltsikotik ohe azpiko kaxan gorderik zituen hostoak atera zituen --- Zu eta ni bezalakoxeak dira. Lagun oso onak, munduko onenak, elkar zaintzen dutenak. Elkarrekin egon nahi izaten dute biek, baina, udazkena heltzen denean, badakite bietako bat lehenago joango

dela zuhaitzetik eta egun batzuetan ezingo dutela elkarrekin egon. Halere, pozik daude, ez dute irribarrea galtzen, ezta animurik ere. Badakite denbora baten buruan elkartuko direla berriro. Gu berdina gara. Zu bazoaz, bai, baina etor zaitezke bisitan; edo ni joan naiteke Parisa zu bisitatzera. Badakigu denbora askoan elkar ikusi gabe egongo garela. Ez dugu bizitza osorako bananduta egon beharrik, ordea. Gainera, gutunak idatz diezazkiokegu elkarri, ezta? Ez duzu kezkatu beharrik beste norabait zoazela eta. Lagun berriak egingo dituzu, gainera. Ondo izango zara, ziur nago.

--- Bai, arrazoi duzu --- elkarri besarkada handi bat eman eta udako oporretan elkar ikusteko egingo zituzten bidaiak planeatzen hasi ziren.

Arrats osoa pasa zuten euren kontuez hizketan. Katik Amanda etxera gonbidatu zuen afaltzera eta lotara. Azkeneko aldia izango bazen ere, ahal zuten gehien dibertitzen eta elkarrekin ahal zuten denbora gehien egoten saiatzen ziren, inoiz ez ahazteko zelako lagun ona zuten alboan. Ez zitzairen axola urruti ala gertu zeuden, lagunak ziren, eta horrek axola zuen gehien beraiantzat.

Lierni Garmendia
DBH 2